



# Antxinako Fotografixia



## Zaldikotxiak Arantzazun

Lehenago batian fotografixiak erakusten doskun paraje honetanxe emun otzan hasieria Aitta Villasantek Euskal Herri osuan zihar ibilli dan 10. korrikari. Baiña, argazki hau atara ezker, makiñatxo bat aldakuntza izan dau inguru honek. Atzeko ostatuak (**Goiko Benta, Milikua eta Hospederixia**) gaur egun antzeko itxuria gorde arren, aurreko aldiari agerketan dan kolejixozatixa eta eliza zaharrerako jaitxeria gerra ostian burututako barrikuntzetan ezkutau dira. Egixa esateko, hemen ikusten ditugun hospederixia eta kolejixua egin barri samarrak ziran oraindiok, XIX. gizaldixaren akaberan edo XX.aren hasieran modutu zittuain-eta. Jakiña da Arantzazu zihero kixkalduta eta hondatuta geratu zala 1834an karlista eta liberalen arteko lehenengo gerratian. Fan dan mendeko egoera politikuaren eragiñez, urte eta ahalegin asko bihar izan ziran elizia eta komentua barriro jasoteko.

Baiña sasue haretan egindako beste obra inportante bat **kamiño barrixarena** izan zan. Urtiagiñeraiño kaltzada zaharra zabaldu ondoren, Zapatatik aurrera bide barrixa urratu zan lekurik gehixenetan, hartara zaldikotxiak eroso igo egixen. Arantzazun beheko sarrerria be orduan zabaldu euen; lehenago Kurtzipizio eta Goiko Benta artetik heltzen zan bidia elizatarira. Aittatu ditugun moduko **zalpardi** edo **zaldikotxe** pillatxua da fotografixa honetan ikusi geinkiena. Artian etzan kotxe motorunik eta autobusik. Dana dala, laister aillegauko ziran honeik be Arantzazura, 1914tik 1918rako Mundu-Gerria baiño gerotxuago.

J. E.

Gipuzkoa Postatxartelean izeneko liburutik hartutako argazkixa.

**LAIXAN**  
Artisau lan exotikoak  
Keramika  
Zurozko gaiak  
Arropa, Larrua  
Apainketa  
Bakargune kalea, 13  
ONATI

**FAGOR**

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA



GURE ESKUALDE ETA  
EUSKADIREKIN ZERBIT-  
ZUAN

ELKARLANEAN ARIT-  
ZEN DAKIEN AGERBI-  
DEA